

Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2004ko ekainaren 25a • IV. urtea

61. zenbakia • DOAN BANATZEKO



XABIER ARANA

“Legezlatu beharrean, arautu egin beharko lituzkete drogak” 7



**BARRUAN,
ZURE HERRIKO
ALDIZKARIA**



DEBAGOIENA

Gurutze Gorriak ia
7.000 kilo janari
banatu ditu /4



EDU MENDIBIL

Espaloia Kafe Antzokia zabalik dago

Elgetako Espaloia Kafe Antzokiak zabaldu ditu atek. Lau urteko lanen ostean, antzokia guztiz egokituta dago, eta atzo, eguena, aurkeztu zuten jendaurrean Patxi Basauri Elgetako alkateak, Iban Retolatza Kultura batzorde buruak, Samuel Gorrotxategi antzokiko kudeatzaileak eta Iban Arantzabal Espaloia Kooperatiba Elkarteko presidentek; argazkian, aurkezpeneko une bat. Helburua da Elgetako kultura beharrei erantzutea, baina baita Debagoienerako, Debabarrenerako eta kanpoko kultura bizitzan erreferentzia bihurtzea ere. /13-14

Goienka2a

ASTEKO GAIA: 14 UME SAHARAR DATOZ IBARRERA

Sahararrek lagun berria dute gurean

Datozen egunotan, Saharako 14 ume etorriko dira Debagoienera, bi hilabetez behintzat, osasun baldintza, elikadura eta giro onaz gozatzen. Laz ere etorri ziren hainbat saharar, baina aurtengo berritasuna da Nubi elkarteak bideratu duela etorrera. Hain zuzen, Nubi elkarteak sortu berri dute Saharako herriaren egoeraz

arduratuta dauden hainbat debagoiendarrek, eta euren helburua da, urtero hainbat ume ekartzeko gain, herri hari laguntzea.

Nubi elkartearena kasu berriena izan arren, ez da elkartasun adierazpen bakarria ibarreen. Esaterako, aspalditik Txernobilgo umeei laguntzen dien elkarteago Oñatin. /3

Udaletako langileek lanuzteekin eta protesta ekitaldiekin segitzen dute

Gaur itxita daude Oñatiko udaletxea, kiroldegia, kultura etxea eta euskaltegia. Langileek horrela erabakita, egun osoko greba egin dute. Eta gainontzeko herrietan ere mobilizazioekin eta lanuz-

teekin jarraitzen dute. Lan hitzarmenaren alde lanuzteak egiten ari dira eskualdeko herri gehienetan. Langile gehienak ez daude ados CCOO eta Eudelek sinatutako hitzarmenarekin. /5

ARAMAIO

Jakituria handiko jendea etorriko da uda ikastaroetara

Oraingo astean zabaldu dute Aramaioko III. Udako Ikastaroetan izena emateko epea. Izan ere, dagoeneko zehaztuta dute aurten landuko duten egitaraua. *Euskal Herria XVI. mendean gizarte eta kultura garai erabakigarria* izenburua du. Uztailaren 6an hasi eta 9ra arte izango dira berbaldiak kultura etxean. /4

OÑATI

‘Udara 2004’ proiektua aurkeztuko dute

Udan turista eta bisitari asko etortzen dira herrira, 5.000 baino gehiago hurbiltzen dira Turismo Bulegora ekaina eta iraila bitartean. Bada, iazko proiektuari jarraipena emanaz, horiei zuzenduta dagoen proiektua aurkeztuko dute datorren martitzenean, 17:00etan, kultura etxean. /6

ESKORIATZA

Hamaika etxebizitza sozial zozketatu zituen Madrazok

Atzo, eguena, zozketatu zituen Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburu Javier Madrazok Eskoriatzan egingo dituzten etxebizitza sozialak. 16 izango dira guztira, baina hiru Udalaren esku geratuko dira, bat Eusko Jaurlaritzak hartuko du eta elbarriendako izendatutakoa hutsik utzi zuten. /6

Goza ezazu bideaz minutuz minutu

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea 36 • ARRASATE • 943 71 18 70

Polo Match

Autoaren Kreditua | EUSKADIKO KUTXA

Finantza ezazu Euskadiko Kutxarekin Volkswagen bat



%15
eraino

aurreztuko duzu
Vokswagen bat
erostean

* Eskaintzaren baldintzak:

Irekiera-komisioa: %1 – Interes
nominala: % 5,95 – UTB 7 urtetara:
%6,35

Eskaintza hori gauzatzeko beharrezkoa
da Euskadiko Kutxak ibilgailuaren
salmenta-prezioaren % 70 gutxienez
finantzatzea, eta halaber, beharrezkoa
da nomina helbideratua, hiru ordainagiri
eta Visa txartela edukitzea.

+ Euskadiko
Kutxaren
finantza-
eskaintza*

04/07/31 arte balio du eskaintza honek – EAEko eta Nafarroako Volkswagen kontzejonario guztietan

Zurekin elkarlanean


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Saharako 14 ume etorriko dira Nubi elkarte berriaren eskutik

Sahararrei laguntzeko sortu dute Nubi elkarte ibarreko hainbatek

LEIRE KORTABARRIA

Saharako herriak beste lagun bat du Debagoienan: Nubi elkarte. Datozen egunotan izango ditugu izen bi horiek ahotan; izan ere, elkartearen eskutik, 14 ume saharar iritsiko dira Debagoienara uztail hasieran, ibarreko familiekin egoteko eta euren bizilekuan ez dituzten bizi baldintzez gozatzeko, bi hilabetez besterik ez bada ere. Saharako Fronte Polisarioak urtero antolatzen duen Oporrak Bakean egitasmoaren barne izango dira egonaldiok, baina aurten, Nubi elkarteak bere gain hartu du deialdia zabaltzeko eta umeen egonaldien zehaztasunak antolatzeko ardura. Iaz, egitasmo horren barne zortzi ume saharar etorri ziren; elkarrekin ilusio handiz antolatu du egonaldia, eta pozik daude ume gehiago ekartzeko lortu dutelako. "Ea, ba, datorren urtean familia gehiago animatzen diren", diote kideek.

Egonaldia ahalbidetzea izan da Debagoieneko Nubi elkarte berriaren lehen egitasmo garrantzitsua. Baina ez da azkena izango, eta euren elkartasuna ez da modu horretara bakarrik bideratuko. Izan ere, helburuak dira saharar herriari laguntzeko ekintzak aurrera eramatea, eta herri horren egoeraren berri ematea Debagoienan.

UMEENGANDIK IKASI

Familiak poz handiz dabilta umeen etorrerarako prestatzen. Nuria Agirre aretxabaletarra lehen aldiz animatu da umea hartzera, eta "oso animatuta" dago: "Bi asmo ditut: batetik, umea bera zaintzea eta gurean ondo egon dadila; eta bestetik, neure seme-alabei esperientzia aberasgarria eskaintzea, elkartasuna, kultura pluraltasuna... ikas



Ibarreko hiru familia hartzaile, Saharako Jalihiina umearekin. Jalihiinak ia urtebete eman du Debagoienan.

ditzaten. Egonaldiak geu ere aberastuko gaitu pertsona moduan", azaltzen du.

Oso antzeko motibazioek bultzatu dituzte beste 13 familia debagoiendar udan saharar umeak hartzera. Felix Arriaran eta Nenus Morales arrasatearrendako, ez da esperientzia berria. Yslem Mohamed, 11 urteko mutikoa, bigarren urtez etorriko da Felixen etxera: "Lekeition ikusten nituen Saharako ume asko, eta neuri ere irrika sortu zitzaidan, halako bizi-baldintza eskaseta daudenei elkartasuna adierazteko modu bat da", diosku. Umearekin ez zuen "inongo arazorik" izan: "Umeok berehala ikasten dute. Eta moldatu ere, segituan moldatzen dira egoera berrira".

Hori bai, nekatuta eta apur bat nahastuta iristen dira, kanpale-

kuotatik irteten direnetik gurera heldu orduko hiru egun ere eman ditzakete eta bidean. Hala ere, hori lehen uneko kontua izaten da. Horrez gain, Saharan bizi diren baldintza txarrak direla eta, ume gehienek dute osasun arazo txiki-kiren bat edo beste.

Jeneralean, dieta aberatsa eta bariatua izateak kentzen dizkie arazo gehienak. "Ahalik eta ondoen eta gehien jateak ez

ziola kalterik egingo pentsatu genuen", dio Felixek.

Nenusen kasuak elkartasunaren beste aurpegi bat erakusten du. Mutikoa, Jalihiina, itsua da eta beste osasun arazo batzuk ditu, eta bere familiak eskatu zion familia hartzaileari luzarago eduki zezan Jalihiina. "Hemen egon den urtean, asko hobetu da", dio Nenusen.

OINARRIZKO BEHARRAK ASE

Nubik Saharako herriari laguntzeko beste egitasmo batzuk ditu, hala nola, udalen elikagai bilketan laguntzea eta dirulaguntzak biltzea. Horretarako kontu bat zabaldu dute Euskadiko Kutxan, honakoa: 3035 0001510010097799. Ekarpenerekin, oinarrizko elikagaiak eta ikasteko materiala lortu nahi dute.

*Nubiren beste
helburuak dira
janari bilketa eta
dirulaguntzak
bideratzea*

Borondate kontua

Elkartasunak izen, aurpegi eta nazionalitate asko ditu, eta horren bideak ez dira beti errazak, baina Debagoieneko hainbat kasu erakusten dutenez, borondatea dagoenean, egin ahal da. Izan ere, Nubi elkartearen kasua ez da salbuespena Debagoienan.

Hain zuzen ere, urtero bezala, Oñatiko Banoia elkarteak Txernobilen bizi diren hainbat ume eta gaztetxoren egonaldia antolatu du. Hamabost ukrainar pasa den astean iritsi ziren, bi hilabete gurean ematera. Gehienak Oñatin egongo dira, baita bana Bergaran eta Arrasaten ere. Hainbat oñatiar umeak ekartzen hasi ziren, eta, askori gertatzen zaion moduan, esperientziak *engantxatu* egin zituen: zortzi bat urte daramatzate familia horiekin umeak ekartzeko, eta etxekoak bezala egin dira. Arduradun Arantxa Zubiak dioskunez, ordea, ezin dute nahi bezain adinako lanik egin: "Deialdi publikoa egin gurako genuke, familia berriek ere aukera izan dezaten eta ahalik eta ume gehien etor daitezten, baina ez dugu bezainbat baliabide hori antolatzeko".

Baina umea ekartzeko borondatea dutenek beti dute bidea. Adibidez, Txernobilen Lagunak eta Elorriko Kainabera elkarteek bideratzen dituzte beharra duten umeen egonaldiak.

Zumelaga
J A T E T X E A

62 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21

NUEVA IMAGEN
IKASKETA ZENTROA
ILE APAINTZE-ESTETIKA

**MATRIKULA
EPEA
ZABALIK**
Maila goreneko
diplomatura

GASTEIZ
Santiago etorbidea 25
(autobus geltokiaren ondoan)
945 27 91 33

AKADEMIA
BASTIDA

Araba etorbidea 3, 1. pisua, Arrasate.
Tel.: 943 793 533 Faxa: 943 790 628
E-maila: bastida@bastida.es

Laguntza klaseak
Enpresa zientziak
Informatika
Internet
Programazioa
Autocad
Kontabilitatea
Mekanografia
Nominak
Web orrien diseinua
Photoshop
Ingeniaritza (baita abuztuan ere)
Informatikako ekipaien
mantentze eta
konponketa

Udako
ikastaroak
2004



Ikastaroen antolatzaile Henrike Knörren esanetan, iaz baino entzule gehiago espero dituzte Aramaioko III. Uda Ikastaroetan.

Jakituria handiko adituak etorriko dira Aramaioko uda ikastaroetara

XVI. mendeko Euskal Herria izango dute berbagai, lau egunez

UBANE MADERA

Oraingo astean zabaldu dute Aramaioko III. Udako Ikastaroetan izena emateko epea. Izan ere, dagoeneko zehaztuta dute aurten landuko duten egitaraua. Euskal Herria XVI. mendeko gizarte eta kultura garai erabakigarrian izenburua du.

Uztailaren 6an hasiko dira ikastaroak eta 9ra arte izango dira berbaldiak Aramaioko kultura etxean. Lau egun horietan, XVI. mendeko Euskal Herria aztertuko dute. Ikastaroen antolatzaile Henrike Knörrek esan digunez, jakituria handiko adituak etorriko dira Aramaiora. Knörren ustez, aurreneko eguneko hitzaldiek erakarriko dute jende gehien, Juan Perez de Lazarragaren gainekoek. Horrekin batera, bigarren egunean ere Jose Ignacio Telletxea eta izen handiko beste hainbat aditu etorriko direla nabarmendu digu.

EGITARAUA EGUNEZ EGUN

Esandako moduan, uztailaren 6an, martitzena, hasiko dira ikas-

taroak. Juan Perez de Lazarraga izango dute aztergai. Lau aditu etorriko dira haren gainean berba egitera: EHUko irakasle Joseba Lakarra; Euskaltzaindiko kide Pruden Gartzia; Historiaren Errege Akademiako Juan Vidal-Abarca eta Eusko Jaurlaritzako kide Borja Aginagalde.

Bigarren egunean, erlijioa izango dute berbagai, Erreforma eta Kontraerreforma. Hiru aditu etorriko dira: Salamancako Elizaren Unibertsitateko Jose Ignacio Telletxea; Paue eta Aturriherriko Unibertsitateko Philippe Chareyre eta EHUko irakasle eta euskaltzain Henrike Knörr.

Ameriketan ibili ziren ontzizabe, misiolari eta abenturazale

Atzerriko hizkuntzetan egingo diren hitzaldietarako itzultzaileak izango dira

euskaldunak aztertuko dituzte hurrengo egunean, beste lau adituen eskutik: Michael Barkham historialaria; EHUko irakasle Agustin Azkarate, Julio Nuñez eta Oscar Alvarez eta Cantabriako Unibertsitateko Margarita Serna.

Eta, azken egunean, foru-oharpenaren aurrekariak landuko dituzte lau adituk: EHUko irakasle Jose Ramon Diaz de Durana eta Lourdes Soriak eta Nafarroako Unibertsitateko Juan Madariaga eta Gregorio Monrealek.

ZEINI ZUZENDUTA

Hirugarren urtez egingo dituzte udako ikastaroak Aramaion. Euskara horren ondo gorde izanagatik aukeratu zuten Aramaio ikastarook egiteko. Eta antolatzaileak pozik daude orain arteko erantzunarekin. Henrike Knörren esanetan, iaz 30-80 bat entzule izan ziren, berbaldiaren arabera. Aurten, berriz, entzule gehiago espero dituzte. Izan ere, interesa duen edozeini daude zuzenduta ikastaro horiek, euskal kulturaren eta euskal historian interesa duen edozeini.

Hiltegi txikien garrantzia aipatu du berriro EHNEk

Jaurlaritzaren plana Europakoaren aurkakoa dela dio

OIHANA ELORZA

Hiltegi txikiak ixteak kalitateari ekar dakioken arriskua azpimarratu zuen EHNEk, Donostian. Bestalde, martitzenean, San Pedro eguna, amaitzen da Mankomunitateak proposamenak jaso eta aztertuko jarri zituen bi hilabeteko epea.

Donostian eman zuen prentsaurrekoa EHNE sindikatuak. Gai askoren inguruko iritzia eman zuen sindikatu horrek, tartean, hiltegi txikiak ixteko Jaurlaritzak duen planaren ingurukoa.

ENHE sindikatuaren arabera, gertuko hiltegien itxierak eragin zuzena izango du okelaren kalitatearen jaitsierarekin. Gainera, Jaurlaritzaren plana Europako Batasunaren planaren aurkakoa dela ere esan zuen, Europa gertuko hiltegien alde dagoelako.

Bestalde, datorren martitzenean amaitzen da Mankomunitateak alde guztien iritzi eta proposamenak jaso eta aztertuko jarritako epea. Hiltegia Bizirik plataformak, prentsaurrekoa egingo du egun horretan hiltegian, eta bildu dituen sinadurak Mankomunitatean entregatuko ditu. Ekainaren 30ean, hileko bilera egingo du Mankomunitateak Gatzagako udaletxean, eta plataformak protesta ekitaldia egingo du eraikinaren aurrean, 16:30ean.

Hiltegia Bizirik plataformak protesta egingo du eguaztenean Gatzagan

DEBAGOIENEAN LABUR

'Euskal Y'-aren alde eta kontra agertu dira hainbat erakundetako kideak oraingo astean

Euskal Herriko 19 erakundek *Euskal Y*-aren proiektuari lehentasuna emateko eskatu diote Europako erakundeei eta Espainiako gobernuari. Horien artean daude, adibidez, Gipuzkoako, Bizkaiako eta Arabako merkataritza ganberak, Eusko Ikaskuntza eta MU, Deustuko Unibertsitatea eta EHU. Bestalde, Jose Luis Ordoñez EHUko irakasleak esan du proiektuak ez duela irabazi ekonomiko eta sozialik emango, eta proiektuaren aurka dauden beste irakasle batzuek ere eman dute iritzia. Bestetik, Magdalena Alvarez Espainiako Sustapen ministroak esan du *Euskal Y*-a Zaragoza eta Valentziarekin lotuko dituela egingo duten abiadura handiko beste tren baten bidez. Horrela, Kantauri aldea Mediterraneoarekin lotu nahi ditu ministroak.

Gurutze Gorriak ia 7.000 kilo janari banatu ditu eskualdeko 139 familiaren artean

Europako Ekonomia Elkartek produkzio soberakina izaten du urtero, eta Gurutze Gorriak produktu horiek beharra dutenen artean banatzen ditu. Urtean birritan egiten du lan hori erakunde horrek duela 20 urtetik hona, eta joan den asteburuan, lehenengo banaketa egin zuen. Debagoieneko Gurutze Gorriak 6.866 kilo janari banatu zituen joan den zapatuan. Esnea, arroza, gailetak, pasta, natilak eta gazta izan ziren banatu zituzten elikagaiak. Eskualdeko 139 familiak jaso zituzten elikagaiok; 297 lagunek. Aretxabaletan, zazpi familiak; Arrasate eta Bergaran, 45ek; Gatzagan, lauk; Oñatin, 16k; Eskoriatzan 19k; Elgetan batek eta Antzuolan, bik.

Arrasate
aretxabaleta
INSTITUTUA

Arrasate Aretxabaleta Institutua
Santa Teresa 25, ARRASATE
Tel.: 943 79 44 47 - 943 79 83 00

ZORIONAK!

Arrasate Aretxabaleta Institutuko irakasleek, bigarren batxilergoko ikasleak zoriondu nahi dituzte **selektibitateko azterketan izandako emaitza onengatik!**

Ondo pasau jaixak!

Ibarreko udaletako langileek mobilizazioekin jarraitzen dute lan hitzarmenaren alde

Oñatiko udal langileek egun osoko greba egin dute gaur, eta eguenean Plenoan izango dira

OIHANA ELORZA/JULEN IRIONDO

Gaur itxita daude Oñatiko udaletxea, kiroldegia, kultura etxea eta euskaltegia. Langileek horrela erabakita, egun osoko greba egin dute. Eta gainontzeko herrietan ere mobilizazioekin eta lanuzteekin jarraitzen dute.

Lan hitzarmenaren alde lanuzteak egiten ari dira eskualdeko herri gehienetan. Oñatiko udal langileek, berriz, lanuzteak egin ordez egun osoko greba egitea erabaki zuten. Atzo, eguena, bigarren bilerara egin zuten, eta erabakiari eutsi egin zioten bozketan irtendako emaitzek. Oñatiko kiroldegia, euskaltegia, kultura etxea eta udaletxea itxita daude gaur, egun osoan. Gaur, hortaz, domeketako zerbitzua eskainiko dute bakarrik.

Langileek protesta ekitaldia egin dute eguerdian. 12:00etatik 12:30ak arte udaletxe aurrean egin dute kontzentrazioa. Datorren eguenean batzar orokorra egingo du Udalak, eta langileak bertan izango direla esan dute.

LANUZTEAK

Debagoieneko gainontzeko herrietan ere mobilizazioak egiten ari dira udal langileak.

Bergaran, adibidez, martitzenetan eta egubakoitzetan egiten dituzte ordubeteko lanuzteak. Arrasaten hiru ordukoak egi-



Arrasaten hiru orduko lanuzteak egiten dituzte. Hurrengoa datorren martitzenean egingo dute.

ten dituzte eta Aretxabaletan astean hiru egunean egiten dute lanuztea: martitzenetan, eguenean eta egubakoitzetan. Armaion oraindik ez dute ezer erabaki. Eskoriatzan alkatea prest azaldu da Eudelek eta CCOOk sinatutako akordioa betetzeko. Enpresa batzordea ez dago ados erabaki horrekin, baina orain-

Mankomunitateko langileak ez daude ados Eudelek eta CCOOk sinatu duten akordioarekin

goz, ez dute mobilizaziorik deitu. Antzuolan, berriz, bertan behera gelditu dira, alkateak negoziazio mahaia zabalduko duela esan duelako, eta Elgetan, aldaketarik ezean, mobilizazioekin jarraituko dute. Bestalde, Gatzagan datorren asteko osoko bilkurara eramango dute gaia, eta Arrasaten ere astelehenean

egingo duten osoko bilkuraren gai zerrendan sartu dute lan hitzarmenaren gaia.

EUDELEN AKORDIOA

Eudelek CCOO sindikatuarekin hitzartu du langileen lan hitzarmena. CCOO sindikatuak, aldiz, gutxiengo sindikala dauka eskualdeko udaletan, eta Mankomunitateko langileak ez daude ados bien artean sinatu duten akordioarekin. Lan hitzarmena negoziatzeko mahai baten sorrera eskatu arren, azkenean, inongo mahairik sortu gabe sinatu dutela salatu dute Mankomunitateko langileek.

Eudelek eta CCOOk sinatutako akordioak 3,2ko soldata igotzea jasotzen du. Mankomunitateko langileek, hala ere, soldata igoeraz gain ez duela beste ezer jasotzen salatu dute, eta igoeraz gain, badirela aztertu behar diren beste puntu batzuk gaineratu dute; azpikontratazioen arazoa eta etorkizunean hitzarmena sinatzeko baldintzak zeintzuk izango diren, besteak beste. Horrekin batera, Mankomunitateko langileek errespetu handiagoa merezi dutela esan nahi die hitzarmena sinatu duten bi aldeei. Mankomunitateko presidente Ignacio Lakuntzaren jarraera ere salatu dute. Euren esanetan, Lakuntza ez da langileekin batera eseri eta erabili duen jokia ez da garbia izan.

CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

Talde osoa emakumearen eskura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Nerea Marin

Antzutasuna
Erditzeak
Antisorgailuak
Menopausia
Ekografiak (4D)
Titietako gaixotasunak
Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
Hezur dentsitometria

Arrasateko kontsultategia:
Zerkaosteta 17, behea
Tel.: 943 79 20 18


Policlínica Gipuzkoa

Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88



BERGARA

Justo Garateren gaineko ikastaroa UNEDen datorren egubakoitzean

Justo Garate o la integración de saberes: una mirada antropológica (1900-1994) izenburuko ikastaroa iragarri du UNED ikastetxeak datorren egubakoitzerako, uztailak 2. Justo Garate orain dela 10 urte hil zen, Argentinako Mendoza hirian.

Egubakoitzeko saioan Felix Leturia UNEDeko irakasleak, Begoña Sarriñandia EHUKo irakasleak eta Jose Maria Urkia EAEko kideak hartuko dute parte. Bergarako udaltxeko osoko bilkuren artoan izango da ikastaroa, 16:30etik 20:00etara. /E.M.



XABIER URZELAI

ARRASATE

Domekara arte ibiliko dira San Juan jaiak ospatzen

Atzo hasi zituzten San Juanak. Dagoeneko adierazgarriak diren zenbait ekitaldi egin dituzte, arrakasta handiarekin: Errementari Dantza, San Juan sua, Dragoi Jana... Baina datozen egunotan ere izango da zer egin. Besteak beste, gaur gauean, Euskadi Gaztearen Disko Festa egingo dute, 22:30ean. Eta bihar gauean, Ruper Ordorikak kontzertua egingo du, Monterronen, 22:30ean. Domekan, barrakak prezio berezian egoteaz gain, Euskal Herriko makina bat lekutatik etorritako erraldioen bilkura egingo dute. Udalak 138.330 euro gastatu ditu jaiok antolatzen, iaz baino gehiago. Edozelan ere, guztiak ez daude konforme egindakoarekin; zenbait arrasatearrek herriarren parte-hartze zuzenarekin eginiko jaiak nahi dituzte, eta hori erakusteko protestak izan dira herrian. /U.M.

ANTZUOLA

Gizarte etxea Sagastiko zelaian egin nahi du Antzuolako Udalak

Gizarte etxearendako aurreproiektua egin du Udalak. Bertan jasotzen denez, Sagastiko zelaian egingo dute gizarte etxea, eta lehen maristen eraikina zegoen lekuan etxebizitzak egingo dituzte. Urtebete barru lanekin hasteko asmoa du Udalak.

Gizarte etxean jarriko dituzte kultura jarduerarako lokalak eta hainbat gizarte zerbitzu: medikua-ren kontsulta, erretiratuendako lokala, zinema, kafetegia eta nagusiendako eguneko zentroa... Bi solairu izango ditu gizarte etxe berriak. /U.A.

ELGETA

Etteen gaineko arau subsidiarioak aldatu dituzte etxe berriak egiteko

Arau subsidiarioetan, etxebizitzaren gaian, aldaketa egitea onartu du udalbatzarrek. EAJ-EAren aldeko eta Aralarren aurkako botoekin. Aldaketak eragingo du babes ofizialekoak ez ezik, etxebizitza tasatuak edo bestelako babestuak ere egitea. Aldaketa horiek 5, 6 eta 8 egoitza-guneetan eta I egoitza sektorean dute eragina. Horren ondorioz, orain, babes ofizialeko etxe ez gain, area horietan etxebizitza tasatuak edo beste babes publiko mota batekoak eraikitzeak aukera egongo da. /I.A.

OÑATI

'Udara 2004' proiektua aurkeztuko dute datorren martitzenean

Udan turista eta bisitari asko etortzen dira herrira, 5.000 baino gehiago hurbiltzen dira Turismo Bulegora ekaina eta iraila bitartean. Bada, iazko proiektuari jarraipena emanaz, horiei zuzenduta dagoen proiektua aurkeztuko dute datorren martitzenean, 17:00etan, kultura etxean.

Oñatiko Garapen eta Turismo Agentziak, Turismo Bulegoak eta Natura Eskolak elkarrekin egingadako proiektua da, eta bi produktu eskaintzen ditu.

Batetik, herria ezagutzen lagunduko dien arte eta historiako hiru proposamen eta natura arloko beste zortzi: hegazti koloniak ezagutzeko aukera, mitologia eta geologiako eraikuntzak, eta errekek eta kobazuloak, besteak beste. Uztaila eta abuztua bitartean egingo dituzte proposamen horiek.

IRAGANA, ORAINA ETA GEROA
Bigarren produktua da *Oñati, iragana, oraina eta*

etorkizuna bideoa. Herriaren ikuspegi orokorra eman nahi du, eta hasiera baten, hiru hizkuntza erabili dituzte: euskara, gaztelania eta ingelesa.

Irudi eta gai asko batzen ditu bideo horrek. *Oñati-iragana* atalean, konde-riak eta Erdi Aroak izan zuten garrantzia jasotzen du, adibidez; *Oñati-oraina* atalean, berriz, Arrikutz-Oñatiko kobak, herriko enpresak eta unibertsitatea, besteak beste; *Oñati-etorkizunean*, Arantzazuko proiektua, Aizkorriko parke naturala eta unibertsitate eta Teknologia Hiria proiektua, esaterako. /O.E.

Zertzelada

Udan herria bisitatzera datozen turistek zuzendutako hamaika proposamen eta bideo bat aurkeztuko dituzte kultura etxean

ESKORIATZA

Hamaika etxebizitza sozial zozketatu zituen Madrazok Eskoriatzan

Atzo, eguna, zozketatu zituen Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburu Javier Madrazok Eskoriatzan egingo dituzten etxebizitza sozialak. 16 izango dira guztira, baina hiru Udalaren esku geratuko dira, bat Eusko Jaurlaritzak hartuko du, eta elbarriendako izendatutakoa hutsik utzi zuten. Hortaz, 11 bana-

tu zituzten zerrendan zuden 21 izenen artean. Guraso bakarreko familiendako bi izan ziren, 35 urtez azpi-koendako zazpi eta beste bi gainerakoendako.

Errentan emango dituzten 16 etxeok astean hasi dira eraikitzen Intxaurtxueta auzoan. 69,45 metro koadrotik 89,40ra bitartean izango dituzte. /M.A.



M.A.

Eskoriatzarren, gatzagarren eta aramaioarren artean egin zuten zozketa.

ARETXABALETAKO

Interneten gaineko hainbat ikastaro egingo dituzte KZGunean uztailan

Hainbat ikastaro antolatu ditu Aretxabaletako KZGuneak uztailerako. Edozein herritarrek har dezake parte, eta doan dira. Oinarrizko Interneten gaineko hiru ikastaro emango dituzte, 20 ordukoak. Nagusiei zuzendutako Internet ikastaroa ere egongo da, hamar ordukoa. Horiez gain, gai baten gaineko mintegiak eskainiko dituzte: bankuarekin lan egiten erakusteko, Internet erosteketarako egiteko, aseguruak Internet bidez kontratatzeko eta messengerraren gainekoa. Uztailako ordutegia, bestalde, 08:00etatik 16:00etara izango da. /M.A.

ARAMAIO

Gaixorik zeuden zehaitzei egindako tratamenduak izan du eragina

Kezkatuta zebiltzan Aramaion Ibargoia kaleko zehaitzekin. Gaixorik zeuden, mamorroz josita. Haiengandik gertu egonez gero, mamorroz beteta bukatzen zuten herritarrek; are gehiago, inguruko etxebizitzetara ere sartu izan dira. Hori dela eta, tratamendu berezi bat eman zieten, eta orain, emaitzak aztertuta, ikusi dute tratamendu eragin positiboa izan zuela.

Edozelan ere, bigarren tratamendu bat ere emango diete zehaitzei, arazoa behin betiko konpondu dutela ziurtatzeko. /U.M.

GATZAGA

GURELen bilera atzeratu egin dute uztailako lehenengo astelehenera

Gatzagako guraso elkarteak ekainaren 28an bilera egiteko asmoa zuen. Hala ere, azken uneko eragozpen batzuk izan direla eta, uztailaren 5ean egitea erabaki dute. Datorren hileko 12tik 23ra Gatzagan egingo diren udaldekuei buruz arituko dira bertan, eta hainbat kontu planifikatuko dituzte. Nahiz eta Gatzagan egingo diren udaldekuek, zenbait irteera egiteko asmotan dabiltzala adierazi dute guraso elkartetik. Argibide gehiago emango dituzte uztailaren 5eko bileran. /Z.V.M.

Xabier Aranak Kriminologia-
ren Euskal Institutuan egi-
ten du lan, eta drogak iker-
tzen ditu. Apirilean, Oñatiko Lege
Soziologiako Institutuan eman zuen
hitzaldia, eta harengana jo dugu dro-
gen erabilerari buruz hitz egiteko.

OIHANA ELORZA

Drogen erabilera desegokiaren eta legez kanpoko trafikoaren aurkako nazioarteko eguna da gaur, egubakoitza. Zein da drogen erabilera egokia?

Erabilera desegokia legez kanpoko drogei buruz hitz egiten dutenean erabiltzen dute, gehienetan. Beste behin, ikusi egin behar da drogen erabilera zenbaterainoko egokia edo desegokia den, eta norendako. Eta muga horiek nork eta zergatik jartzen dituen ere jakin behar da.

Tabakoaren, alkoholaren, botikaren eta kafearen erabilera zaintzen bada, produktu horien erabilera arduratsua egiten baldin badu jendeak, zergatik ez ditu era berean erabiliko legez kanpoko drogak?

Zer esan nahi du erabilera arduratsua izateak?

Batetik, erabileraren arduraren hartzen duzula esan nahi du horrek; bestetik, zer egin behar duzun jakin behar duzula. Adibidez, lanera baldin bazoaz, jakin behar duzu ez duzula drogarik hartu behar; legezkoak zein legez kanpokoak zaku berean sartzen ditut kasu horretan. Horrek ez du esan nahi, ordea, zapatu gauean hiru konbinatu edan ezin dituzunik. Izan ere, kontua da zer, non eta zenbat har daitekeen ondo jakitea.

Erabilera arduratsua esan nahi du, era berean, nire kontsumoak ezin diola ondokoari kalterik egin. Ahal den neurrian, gainera, neure burua ere ez dut kaltetuko.

Erabilera arduratsua ez egiteak dakar dependetzia?

Era guztietako kontsumoak daude; bat, akaso, nahi duelako mozkortuko da; beste bat, berriz, ohartu gabe. Hala ere, asko eta asko ez dira gustura bizi euren lanagatik, bizibideagatik, osasunagatik, umoreagatik edo dena delakoagatik, eta neurririk gabe kontsumitzen dituzte substantzia bat baino gehiago.


Gu bizi garen gizarte honetan, bada-kigu nola kontsumi daitezkeen droga batzuk, droga kulturalak dira-eta. Ardoa, adibidez, jatorduetan edaten dugu, eta kafea goizetan hartzen dugu. Horren inguruko informazioa badugu: nola hartu behar ditugun, noiz, zenbat aldiz, eta baita zein ondorio ekarriko dizkiguten ere. Baina hori ere legezko drogekin bakarrik gertatzen da.

Adibidez, duela aste batzuk gastronomiaren astea egin zuten Donostiako Intxaurrondo auzoan, eta purua nola erre eta dastatu behar den erakutsi zuten bertan. Milaka lagun hiltzen dira, urtero, tabakoaren eraginez, baina gizartean ondo ikusita dago tabakoa erretzea.

Beti esan izan da informazioa eta hezkuntza direla kontsumo egokirako biderik zuzenenak.

Botikak ezin ditugu edozein modutara hartu. Lehenbizi, arloan aditua den profesional batek esaten dizu zein botika hartu eta egunean zenbat aldiz. Medikamentuak berak berari buruzko informazio guztia jasotzen duen papera dakar, eta ondorioak zeintzuk diren ere azaltzen du.

Baina legez kanpoko substantziekin, ez dago informazioa eta tratua hori, eta



ENEIDA ITURBE

Xabier Arana

DROGEN IKERKETAN ADITUA

**“Legeztatu beharrean,
arautu egin
beharko lituzkete
legez kanpoko drogak”**

**LEGEZKO ETA LEGEZ KANPOKO DROGAK
“Aritu batzuek aholkua eman diezazukete zein ardo
har dezakezun arrainarekin edo okelarekin.
Legez kanpoko drogekin, baina, ez da hori gertatzen”**

**DROGEN ETA SUBSTANTZIEN SAILKAPENA
“Nazioarteko irizpide batzuk jarri dituzte legezko eta legez
kanpoko drogak sailkatzeko. Bigarren zerrendan,
kasualitatez, Hirugarren Munduan lantzen direnak daude”**

bakoiak nahi duenean eta nahi duen beste kontsumitzen ditu.

Legez kanpokoak izateak ez duelako esan nahi kontsumitu ezin direnik.

Ez, gaur egun kontsumitu nahi duen edonork kontsumi ditzake.

Oraindik ere ez da legez kanpokoek buruzko informazio guztia ematen.

Legez kanpoko substantziekin ondorio batzuk izaten dituzte, legez kanpokoak direlako, eta ondorio batzuk oso larriak izan daitezke: aizuntzea (adulterazioa)...

Ardo ona eskatzen baduzu, badakizu asko ordaindu behar duzula, baina kalitate oneko ardoa edango duzula ere bai. Aritu batzuek aholkua eman diezazukete zein ardo har dezakezun arrainarekin edo okelarekin. Legez kanpoko substantziekin, baina, ez da hori gertatzen.

Drogen inguruko hitzak zuzen erabiltzen direla uste duzu?

Marikoia edo *tortillera* hitzak esanda, denok ulertzen dugu zer esan nahi duten. Hala ere, gayen eta lesbianen elkarrekin lan

handia egin dute arlo horretan, eta gaur egun ez dira hitz horiek hala-hola erabiltzen. Toki publiko guztietan kontzeptu bakoitza definitzen duten hitz egokiak erabiliko dira, adibidez. Bada, drogekin ere gauza bera egin beharko litzateke.

Ezberdinak izan arren, droga guztiek ematen dute dirua.

Bai legezkoek baita legez kanpokoek ere, bai. Ikerketa ekonomiko batzuek erakusten dute legez kanpoko drogen negozioa legezko ekonomiaren parean doala. Legezko substantzia batek publizitatean inbertitzen du dirua, jendeak substantzia hori kontsumi dezan. Legez kanpoko substantziak, berriz, ustelkerian inbertitzen du.

Kontua da substantzia bati nondik begiratu behar diogun, legezkoa den edo ez esateko eta substantzia bat erregulatuta dagoen edo ez esateko. Une honetan, legezko substantziekin ere arazoak dituzte, eta legez kanpoko drogak arautzeak ez du esan nahi arazo guztiak amaituko direnik.

Orduan, legezkatzeak ez du dena konponduko?

Nik nahiago dut legezkatzea esan beharrean arautzea esatea. Gure kulturaren, era oso desberdinetan araututa dauden legezko substantziak ditugu. Botika bat hartzeko, adibidez, errezeta behar da; adin txikikoek ezin dute alkohola duen edaririk edan; tabakoa ere ezin da toki guztietan erre. Isunak jartzen dituzte, baina legez kanpoko substantziei jartzen dizkieten isunak informazioa eta prebentzioa baldintzatzen ditu.

Izan ere, jende asko bizi da drogen kontura.

Bai, mugak jarri zituztenetik batez ere. Legez kanpoko substantziak saltzen dituzten artean ere hainbat maila daude.

Baina Afganistanen opioa eta Kolonbian koka lantzen ere jende asko bizi da, herritar asko.

Kokaina eta heroina oso droga berriak dira. 100 urte inguru dituzte. Koka orriek eta opioak, aldiz, mende asko dituzte, oso aspaldikoak dira biak. Arlo askotan erabili izan dira urtetan: osasunean, jakietan, kulturaren edo erlijioan. Errioxan ardoa eta Euskal Herrian sagardoa ditugun bezalaxe, herrialde horietan substantzia horiek dituzte.

Kokaren orria eta opioa ez dira drogak; bai, ordea, kokaina eta heroina; sagarra ez, baina sagardoa bai. Herrialde horietako kulturak era naturalean erabiltzera erakutsi du, baina egun, negozioari etekina atera nahi diote askok, produktu horietatik atera daitezkeen substantziekin. Adibidez, Indiako emakume batek kontatu zigun duela hilabete gutxi han gertatzen dena: hango gizarteak kalamuari eta opioari erabilera terapeutikoa eman die mendetan zehar. Indiako herritar gehienek ezin dituzte mendebaleko botikak ordaindu. Beraz, beraiek euren osasun bide propioa dute. Egund, ordea, legez kanpoko da substantzia horiek kontsumitzea, eta trafikatzailari erosi behar diote, oso garesti, kalitate txarragoa duen produktua, beraien medikamentua egin ahal izateko.

Kasualitatea da legez kanpoko drogak Hirugarren Munduko herrialde-tako produktuak izatea?

Ez. Nazioarteko irizpide batzuk jarri dituzte estupefazianteak sailkatzeko eta arautzeko. Substantzia batzuk legez kanpoko zerrendan sartu dituzte, heroina eta kokaina, adibidez. Beste batzuk, ordea, ez, tabakoa eta alkohola, esaterako.

Sailkapen hori da lehenengo legezko tranpa. Zerrenda horiek substantziak horrelaxe arautzea behartzen dituzte munduko herrialde gehienak. Eta kasualitatez, hirugarren munduko herrialdeetan lantzen dituzten substantziak dira legez kanpo utzi dituztenak.

Gutunak

Aurreko asteko
AHTri buruzko
artikulu dela-eta

Joan zen asteko GOIENKARIAN, 2. eta 3. orrialdeetan, argitaratu zen erreportajea irakurtzen ari nintzela ez nuen denbora gehiegi egin kuriositatekin harri durara eta harriduratik haserrera pasazten.

Azkenaldian guztion poltsikotik ordaintzen ari garen Eusko Jaurlaritzaren AHTren aldeko kanpaina erraldoiaren kutsua hartu nion. Batez ere, aldeko eta kontrako arrazoiak aurkeztean. Larregi ez luzatzearen, aldeko arrazoien artean azaldutako gezur eta funts gabezia argitzen saiatuko naiz. Eta, bide batez, eskatuko nieke kazetariari era horretako informazioa azaltzerakoan iturria zehaztu dezaten, irakurleok jakin dezagun era horretako argumentu demagogikoen atzean zein dagoen.

Hamar arrazoietatik lehenengoak "AHTk errepide sarearen garraio ahalmenaren bikoitza du" zioen. Gezurra. Asko jota AHT linea bat errepide linea batekin konpara dezakegu (eta hori ere ez), baina errepide sare guztiarekin? Hurrengo arrazoian ematen du erantzuna: "Eguneko 6.000 auto eta kamioi gutxiago ibiliko dira". A8 autopistak bakarrik egunero 285.000 erabiltzaile jasotzen ditu (abuztuan 350.000); beraz, lekutan geratzen da AHTren garraio ahalmena.

6.000 auto eta kamioi gutxiago aipatzen dituen bigarren arrazoi horrek barrea eragingo lidake esku artean dabilgun gaia hain grabea ez balitz. Bakarrik A8a kontuan hartuko dugu: beronek azken hilabeteetan %12ko igoera izan du erabilerari dagokionez (batez ere ordainsariaren merkatzearen ondorioz, baina aurreko hilabeteetako igoera %8,8an mantentzen zen). Beraz, AHT ez litzateke gai izango A8aren urtebeteko trafikoko gehikuntza xurgatzeko ere. Bakarrik merkantzien garraioa kontuan hartuta, hurrengo 15 urteetan trafikoa ia bikoiztu egingo da mugan (aurreikuspen kontserbadore bat hartuta). Beraz, zer eragin izango dute AHT proiektuan xahutuko diren milaka milioi euroek? Arazoa larriagotu egingo da eta konponbideak hipotekatuta izango ditugu.

3., 4., eta 7. argumentuak (27.000 gasolio litro aurreztuko direla, negutegi efektua eragiten duten 425.000 kilo gas ekiditea eta erregai, istripu eta abarretan 634.000 euro aurrezte) 2. arrazoiaren oinarrituta daude, biderketa hutsa eginez, eta datuak ikusgarriak izan daitezkeen arren, gorago azaldu dudana bezala 6.000 ibilgailuren murrizketa eta honen ondorioak hutsaren hurrena dira benetako arazoarekin konparatuz gero. Bestalde, inondik inora ez da aipatzen emaitza berdina edo hobeak lortuko lituzkeen beste garraio eredu alternatiboren bati buruz. 6.000 ibilgailu errepidetik beste era bateko garraio motara pasatzeko ez dago AHT proiektuaren beharrik. Are gehiago, askoz ere diru gutxiagotatik askoz ere ibilgailu gehiago atera ditzakegu errepideetatik beste garraio bide batzuetara benetan helburu hori lortu nahi duen proiektu bat martxan jarritz gero.

5. arrazoiaren arabera "errepideek baino 10 zarata puntu gutxiago eta aire-

portuek baino 100 gutxiago eragingo ditu". Ez dute esaten, baina, hori batez bestekoa dela, orokorrean, eta neurketak lokalki eginez gero emaitzak erabat bestelakoak direla.

6. arrazoia antologia baten gordetzeko modukoa da: "Gaur egungo autobideek hartzen duten leku fisikoa baino hiru aldiz gutxiago hartuko du AHTk". Eta? Horrek zer esan nahi du, autobideak desagertu, bidegorri bihurtu eta AHTren bidea bakarrik erabiliko dugula? Ba ez, besterik gabe European bide azpiegiturretan okupazio tasa handienetarikoa daukagun gure lurralde honi (batez bestekoaren bikoitza) beste azpiegitura erraldoi bat gehituko diogula.

8. arrazoia bukaerarako utziko dut, onargarria den bakarra da eta. 9.enaren arabera "Ibarra bezain gune ekonomiko garrantzitsu batentzako Europarekin lehiatzeko ezinbesteko azpiegitura da". Arrazoia barik iritzi hutsa da hori. AHT proiektuak ezarri diren herrialde ezberdinak aztertu besterik ez dago (begiratu Espainian edo Frantzian) herrialde hauek ekonomia lehakortasunaren izan duten eragina ikusteko. Ondorioa garbia da: lehiakortasunaren klabeak beste batzuk dira. Mahai gainean jarri enpresariei ea zer duten nahiago beraien enpresentzat, AHT proiektu bat edo merkantzien garraiora egokitutako sare bat (AHTrekin zerikusirik ez duena, hain zuzen ere).

10. arrazoia, karamelu hutsa: hurrengo 20 urteetan 25.000 lanpostu sortuko omen lituzke proiektuak. Eta eraikuntza sektorean interesak dituzten zenbaitentzako irabazi imajina ezinezkoak. Proiektuak 3.000 milioi euroko (gobenuaren hasierako aurreikuspena, erabat desfasatua, orain bikoitzez hitz egiten ari dira eta hurrengo urteetan auskalo) kostua badu, lanpostu bakoitzeko 120.000 euro (20 milioi pta) inbertituko dira. Garbi dago dirutza hori beste edozein proiektuan inbertituz gero ere horrenbeste mila lanpostu sortzea ez dela batere zaila.

Azkenik, 8. arrazoia, "EAEko hiriburuak elkarrekin modu azkar eta seguruan lotuko ditu". Arrazoi bezala onargarri den bakarra, aldekoa iruditzen ez zaidan arren. Izan ere, proiektu hau 80ko hamarkadaren bukaeran joan zen mamitzen euskal hiri polinuklearraren ideiarren baitan. Horretarako da, bai, hiriburuak lotzeko, gaur egun hiriburuaren arteko mugikortasun tasa %0,45 dena (mugikortasunaren %97 eskualde artekoa da). Mugikortasun osoaren %0,45 modu azkar eta seguruan egiteko gastatuko ditugu milaka milioi euroak. Garraio bideen kolapsoa ez duela konponduko? Ingurumenari kalte jasanezina eragingo dizkiola? Bailara, herri eta auzoak erdibituko dituela? Herri honek dituen beste hainbat beharri aurre egiteko aurrekonturik gabe geratuko gara. Eta horrek guztiak zer axola dio ba?

Eta tristeena da gezur handi honi buelta emateko aukera gehiegi ere ez dudala ikusten. Berriz ere kaka egingo digute burutik behera: berriz ere hezkuntza eta ikerkuntzarako diru nahikorik ez dugu izango, berriz ere pobrezia aurreratu laguntzak murriztuko dira, berriz ere etxebizitza politika eraginkor baterako aurrekonturik ez da izango, berriz ere etorkinen laguntza eta integrazioarako dirua faltako da... eta berriz ere AHTrentzat Yproiektua aurrera aterako dute, Pasaiaiko kanpoko por-

tua egingo dute, autopista gehiago egingo dituzte... eta txistua eta danbolina joaz munduan parekorik ez dugula pentsatzen jarraitu eta zoriontsu biziko gara.

Oharra: idatzi honetan aipatutako datu guztiak Eusko Jaurlaritzaren sail ezberdinetako txostenetatik ateratakoko dira.

IÑIGO IÑURRATEGI
Debagoiena

Eskerrik asko,
San Joxepe

Badira egun batzuk, San Joxepe Bergara eta Antzuolako erretiratuak elkarteak aurten 87 urte bete ditugun edo beteko ditugun bergararrei omenaldia eskaini zigula. Bada, nire eskerrik beronenak eman nahi dizkiet omenaldi hori aurrera ateratzeko parte hartu zuten guztiari, maiteminez eta arreta handiz zaindu gintuztelako.

Dena egon zen oso ondo antolatua: meza, dantzarien emanaldia, abesbatzarena, oparien banaketa (plaka oroigarria), luntxa... Hitz bitan esateko: ezin hobeto.

Eskerrik asko, bihotz-bihotzez, antolatzaileei.

OMENDUTAKO BAT
Bergara

EHNA egin,
bizi eta erabili

Europar hauteskunde hauetan, Bergarako euskal herritar sentitzen garen gehienok lotsarazi gaituzte. Lotsarazi baino gehiago, espainol sentiarazi. Bergaran, jada, 800 bat EHNA helarazi ditu Udalbiltzak eta hauteskunde egunean ezin izan dugu erabili. Ez digute euskal herritar gisa bozkatzeko utzi.

Gogoratuko duzue joan zen ekainaren 6an, Ondarroan egin zen naziotasun egunean, Udalbiltzak eta Bai Euskal Herriari herri ekimenak EHNArekin bozkatzera joateko deialdia egin zutela. Ba ikusarazi dutenez, Euskal Herriko instituzio eta herritarren hitzak ez du ezertarako balio. Espainiak inposaturiko aginduak denaren ginetik jartzen dira. Ezin dute asumitu herri honen bakarrik bizitzeko nahia, ezin dute asumitu herri hau inoren eskutik joan gabe bizi izateko gai dela eta ez duela Espainiak inposaturiko legerik ikusterik ere nahi.

Lehenago ere ikusia da herri txiki honetan lotsagabe asko direla, eta hauteskunde hauetan ere ikusi da lotsagabe hauek nortzuk diren, herri hau lotsarazten nortzuk ibiltzen diren, herri hau espainiar komunitate gisa jartzen nortzuk ibiltzen diren, zeren partidu horiek, "nazionalista" sentitzen diren partidu horiek eurek ez digute euskal herritar gisa bozkatzeko utzi. Herri honek aske bizitzeko duen gogoari ez baitiote nahi duen bezain aske bizitzen uzten. Kate motzean dute lotua eta kateak tope egitean lepoa estutu eta atzera egitera derri-

gortzen baitute. Horietako partidu batzuek, gainera, atxikimendua eman eta konpromisoa hartu zuten EHNArekin bozkatu eta bultzatzeko, baina betiko moduan hitzak izan ziren, zeren igande honetan berretsi zuten Espainiarekin bat doazela, gainera burua tente, lotsarik gabe.

Gure galdera ondorengoa da: nor egiten da honen erantzule? Zuek al zarete "nazionalistak"? Zenbatean saldu duzue Euskal Herria?

Bergarako Bai Euskal Herriari herri ekimenak oso argazki txarra atera dio Europar hauteskundeetan partidu "demokratiko" eta "nazionalistek" egin duten paperari, euren legerari zin egin eta espainiar gisa bozkatzera derrigortu gaituztelako, eurek nahi izan duten bezala.

BERGARAKO BAI EUSKAL HERRIARI
HERRI EKIMENA
Bergara

Protagonismo
banaketa

Debagoieneko Mankomunitateko langileok lan hitzarmen bat lortzeko ahaleginetan egin ditugun mobilizazioak direla-eta, zenbait gogoeta egin ditugu eta Debagoieneko biztanleei gure iritzia berri eman nahi diegu.

Jakina denez, administrazioko langileak geldialdiak egiten egon gara azken asteotan lan hitzarmen bat negoziatu ahal izateko mahai baten sorrera eskatzeko. Azkenean, inongo negoziaketa mahairik sortu gabe, administrazioak (EUDELe) gutxiengo sindikala duen CCOO sindikatuarekin urte honetarako lan hitzarmena sinatu du Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban, gainerako sindikatuen iritzi eta eskaerak kontuan izan gabe.

Lan hitzarmena negoziatzea eskatzeko mobilizazioak egiten ari ginen langileoi lelo aurpegia gelditu zaigu; hitzarmena sinatuta gelditu da eta ez daukagu zereginik nahiz eta langileria gehiengoa izan.

Administrazioak (EUDELe) eskuak garbitzeko aitzakia ezin hobea aurkitu du eta CCOO sindikatuak, berriz, puntuak irabazi nahi izan ditu langile kolektiboaren aurrean: protagonismoa bere gain hartu nahi izan du. Negoziatzea eta hitz egitea bultzatu beharra dagoela aldarrikatzen den aldi berean ezin daiteke gutxiengo batekin tratua itxi eta gehiengoaren iritzia alboratu. Ez zaigu postura demokratikoa iruditzen, nahiz eta "legezkoa" izan. Subasta batean ariko balira bezala "eskaintza onena" egin dienarekin sinatu dute hitzarmena beste guztiok kanpoan utziaz. Esan behar da, gainera, hitzarmen honek 3,2ko soldata igoeraz gain ez duela beste ezer jasotzen (lan baldintza eskasekin egiten diren kontratazioak, azpikontratazioen arazoa edo etorkizuneko hitzarmena sinatzeko baldintzak zeintzuk izango diren, besteak beste).

Badakigu sindikatuen artean harremanak ez direla onak, baina onartu ezin dena da langileria interes orokorren gainetik sindikatu baten siglak egotea. Lehenengo langileen defentsa egin behar da, eta hau lortzen bada, gero, sindika-

tuarena egon beharko litzateke, eta hau sindikatu guztiei esan nahi diegun zerbait da.

Mankomunitateko lehendakari Inazio Lakuntza ere ez da gurekin eseri eta hark erabili duen jokoa ez da garbia izan. Errespetu falta nabaria da gure nagusiak langileekin erakutsi duena, hitz egitera ere ez baita gurekin jarri.

Protagonismo guztia banatuaz "hitzarmen" hau sinatu duten bi aldeei zera esan nahi diegu: langileok errespetu gehiago merezi dugula, gauzak ondo egiten direnean ez dagoela hitz politekin ezer zuritzen ibili beharrik, erabaki demokratikoak gehiengo kontuan hartuta egiten direla, negoziazioa dela bidea baina negoziatzeko hitz egiten jarri beharra dagoela lehenengo (guk hala eskatu genuen otsailean).

Sindikatuak langile guztien interesak defendatu beharko lituzkete eta administrazioak, berriz, eredu izan beharko luke gizartearen aurrean lan hitzarmenak sinatzeko orduan. Administrazioak horrela adarra jotzen badigu zer gertatuko da gainerako sektoreetan?

Soldata igoeraren gozokiarekin, aldi baterako kontratua dutenen edo azpikontraturik dauden lan baldintzak hobetzea, behin-behineko kontratuak murriztea eta gurekin hitz egitea ekidin nahi da.

Langileen eskubideak krisian daude gure artean dauzkagun batzuen jarraera eta ekintzei esker, hitz politikak esan arren gero nahi dutena egiten dutelako. Noiz hasiko gara gauzak ondo egiten?

MANKOMUNITATEKO LANGILEAK
Debagoiena

Epaitegian euskaraz

Euskal Herrian bizi garen arren eta euskara bertako hizkuntza izan arren, euskal herritarrok jarduerak egiterakoan euskara erabiltzeko oztopoak besterik ez dugu aurkitzen. Funtzio publiko gehienek gaztelera erabiltzera behartzen gaituzte, gure hizkuntza eskubideak sistematikoki urratzen dituztelarik.

Hau ikusirik, eta egoeraz larriturik, hauek euskalduntzeko prozesua martxan jarri genuen. Horrela, justizia administrazioa herritarrok egunero erabiltzen dugun gune bat izanik, gure euskalduntze-prozesua bertara bideratu genuen bereziki, herri ekimen indartsu bat abian jartzearekin batera.

Herri ekimen honen abiapuntua ondorengoa zen: Bergarako epaitegian lanean diharduten lau epaile eta hogeita bost funtzionarioetatik %100 eta %68, hurrenez hurren, erdaldunak direla. Hau da, euren eguneroko jardun judizialak euskaraz egiteko ezintasuna zutela eta, beraz, euskaldunon hizkuntza eskubideak bazterturik zirela.

Honelako eta bestelako egoerak behar-turik, Bergaran, euskararen normaliza-

zioaren alde lanean dihardugun elkarteak batuz, kontzentrazio eta salaketa kanpainari ekin genion, herrian hainbat mobilizazio eginez. Hauetan, herritarren parte-hartze bikaina ikusirik, herriak egoera honen aurrean duen sendotasunaz ohartu ginen. Baina hau guztia ez da nahikoa, gure helburua lortzeko urrats bat baizik. Horregatik, lanean jarraitu behar dugula argi dago; horretarako, herritarren parte-hartze eta laguntza beharrezkotzat jotzen dugularik.

Beraz, aurrerantzean ere antolatuko diren mobilizazioetan parte hartzera gonbidatzen zaituztegu zuen laguntza ezinbestekoa baita justizia administrazio euskaldun bat lortu ahal izateko.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
Bergara

Hauteskundeen balorazio ona

Honako hauek izan ziren Europako Hauteskundeetako emaitzak Aretxabaletan: EAJ: 649; HZ: 541; PSOE: 392; EA: 302; PP: 150; Aralar: 144; EB/IU: 70; Besteak: 37; Baliogabeak: 10; Zuriak: 8.

Emaitza hauek ikusita egiten dugun balorazioa honako hiru puntuetan laburbiltzen dela iruditzen zaigu: batetik, hauteskunde hauetako abstentzioa esan-guratsua izan da, Aretxabaletan %55-56 izan delarik. Bestetik, Herritarren Zerrendaren (HZ) emaitzak oso onak izan direla baieztatu genezake, zehazki botoen %23 jaso du zerrenda honek. Azkenik, Herritarren Zerrenda izan da aukera guztien artean boto kopurua mantentzea lortu duena, beste guztien jaitsiera nabarmena izan delarik.

Honela, bada, hainbat adierazpen egiten nahi genituzke hauteskunde hauei dagokienez. Batetik, (argi dago) hauteskunde hauek egoera ez demokratiko baten eman direla, non gure zerrenda aurkezteko aukera ere espainiar legediak bahitu egin duen. Bahiketa honek milaka euskal herritarren eskubide politikoa eta zibilak ezerezean utzi ditu. Bestetik, egoera honen ondorioz, HZk ez ditu izan beste alderdiek izan dituzten baldintza berak: komunikabideetan hautesle zerrenda bezala zegokion tarterik ez, dirulaguntzarik ez... eta orokorrean, ez dugu kanpaina era normal baten egiteko inongo posibilitaterik izan.

Horregatik, berriz ere, egoera honi aurre egiteko erakutsi dugun gaitasuna agerian gelditu da. Azpimarratu nahi dugu hau atxabaltar askoren konpromisoagatik ere izan dela posible. Batetik, 270 sinadura bildu ziren Herritarren Zerrenda hauteskundeetara aurkeztu ahal izateko. Bestetik, kanpaina zehar egiten diren ekintza ezberdinetan atxabaltar askoren parte-hartze eta laguntza izan dugu. Horrela, bada, aukera politikoa hau posible egin duzuen atxabaltar

guztiok eskertu eta zoriondu nahi zaituztegu. Aurrerantzean ere, etorriko diren erronkei aurre egiteko, bide berririk eustera animatzen zaituztegu.

Era berean, azpimarratu nahi dugu naziotasun klabea Euskal Herri osoan presente egon den hauteskunde zerrenda bakarra izan dela. Uste dugu argi gelditu dela hauteskunde hauetan botorik baliagarriena HZrena izan dela.

Bestalde, gure eskerrik beroena adierazi nahi diegu NOS-UP alderdi Gali-ziarri, HZko 3.000 apoderaturik botoen zenbaketaren jarraipenean parte hartzea ahalbidetu baitugu.

HZ-REN HAUTESKUNDE BATZORDEA
Aretxabaleta

Gizatasunik ez erietxeetan

Maiatzaren 13a egun gogoangarria izango da guretzat: Aitxixari bihotzeko ebakuntza arriskutsu bat egin zioten Gipuzkoako Poliklinikan. Artean ere birrikak osatu gabe zituen baina Mendaroko sendagileek adorea eman zioten aurrera egiteko. Egin zioten zabaltze-lana eta sendagilea bera ikaratuta geratu zen barnean ikusi zuena zela-eta. Barregarria, teknologiaren aroan ez ziren gai izan azken 25 urteotan izandako biriketako gaitz kronikoa alde aurretik diagnostikatzen. Poliklinikan egunak luze egin zitzaizkigun baina azkenean Mendarora ekarri zuten. Guretzat, etxera ekartzearen antzekoa-edo zen, egoera hain larria izanik gertuago izango genuelako, guk ere handik edo hemendik argizpi bat ikusi nahi genuelako. Bihotzeko ebakuntzaren ondorengo prozesua bide onetik zihoan, ez, ordea, birikena. Egunak luzeak ziren, 24 eguneko zaintzak eta gau amaigabeak. Ostiralean, ekainak 18, Donostiara eramane zuten, Matia zentroan berreskuratze prozesuari heltzeko. Nolanahi den, iritsi zen Matia famatura eta harrigarria, gure aitxixa, berreskuratze eta indartze prozesuari ekin behar ziona, gaixo terminalen sailean jarri zuten. Asteburuaren gainera eta Matian asteburuak bereziak dira, bereziak zentzurik sarkastikoenean. Asteburuko txandan ez da sendagile "ofizialik" egoten, "zaintzakoa" egoten da. Erizainei deitzeko gelako tinbrea konektatu gabe zegoela ikusi zuen larunbat goizean osaba batek, eta aitxixa, lokartuta zegoela. Orduan jakinarazi zioten gauean lasaigarri bat eman ziotela urduri samar zegoelako. Esnarazi, garbitu, jantzi, bazkaltzen eman eta dominoan jolastu zen senide eta gelakideekin. Horiak horrela, larunbatean lasaigarri gehiago emango zioten bel-durrez utzi genuen Matian. Izan ere, Mendaron esana ziguten tratamenduak berekin zituela hamaika botika eta ezin zitzaiola lasaigarri gehiago eman. Igan-

dea ere iritsi zen eta aitxixa ezin zuten esnatu. Egun osoan "erdi lo" egon zen (sendagileak berak "groggi" hitza erabili zuen), altxatu, kolpeak eman, astindu. Ezer ez. Hilda bezala. Berriz ere gauean lasaigarriak eman zizkiotela esan ziguten, deika eta laguntza eske aritu zelako. Astelehen goizean deitu ziguten: "Zuen aitxixa hilda aurkitu dugu ohean". Bertara joan eta gelakideak esan zigun goizeko seietan bizirik eraman zutela erizainek. Medikua agerian goizeko zazpi eta erdietan hil zela ageri da. Agiriaren behealdean ostiraletik astelehen goizera emandako lasaigarri-dosien zerrenda.

Bi egunen buruan, azken 40 egunetan egindako lan eta ahalegin guztia zapuztu dute Matia zentro ospetsu eta arranditsuan. Zergatik? Guardiako sendagileari ez ziotelako gure aitxixaren egoeraren berri eman, zentroen arteko koordinaziorik ez dagoelako eta azken batean, Euskal Herriko erietxeetan gizatasunik ez dagoelako. Gutun hau salaketatzat hartuko du askok. Izan dadila bederen etorkizuneko kasu askoren gogoetarako bide. Adineko jendea oztopo da gizartearentzat eta osasun zentroen sistemak ere hari beretik. Muxu handi bat, aitxixta.

AINHOA LENDINEZ
Elgoibar

Bergarako San Martzialgo erromeria eta mahaiak

Bergarako San Martzialgo erromeria Buztailaren 4an ospatuko dugunez, dagoeneko jarri ditu Udalak mahaiak alokairuan. Joan zen urtean domekatik astelehenera norbaitek mahaiak lapurtu egin zituen eta Udalak multa bat ordaindu behar izan zuen bueltatu ez ziren mahaiengatik.

Hori dela eta, aurten Bergarako Udalak ondorengo neurriak hartzea erabaki du: talde bakoitzeko 100 euroko fidantza ordaindu beharko da eta, horretaz gain, mahai bakoitzeko 20 euro; bestalde, mahaiak domekan, 19:00etatik 21:00etara, Udalak esandako tokira eramane beharko dira. San Martzialera igotzen den edozeinek badaki arratsaldeko ordu horretan herri kirolak eta dantzaldia egoten direla eta jaiak ez dela amaitzen, gutxienez, 21:00etan jaitsiera egiten den arte. Hortaz, ez dauka inongo zentzurik jaiaren unerik gorenean, jendea alde batera eta bestera ibiltzea mahaiak eramaten.

Nik uste dut askok hobe dela mahaiak zaintzeko norbait edo norbaitzuk jartzea domeka gauetik astelehen goizera arte.

M. LARRAÑAGA
Bergara

Goienkaria

DEBAGOIENENKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendietza,
Miguel Angel Elkorobereizbar,
Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain,
Iratxe Bengoa, Arantzazu Arana
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez,
Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín,
Imanol Elortza, Amaia Mundiñano
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

Debarroko Pilota Txapelketako finalak, bihar, Eskoriatzan

17:30ean hasita, kadete, gazte eta senior mailetako finalak izango dira

XABIER URZELAI

Denboraldiko azken txapelketa behar den moduan amaitu gura dute ibarreko pilotariak: txapela jantzita. Ibarreko lau herririk ordezkaritza izango dute finaletan: Bergara, Antzuola, Aretxabaleta eta Eskoriatza dira herri horiek.

Martxoan hasi zen Debarroko Txapelketa azken txanpan dago, bihar arratsaldean jokatuko dituzte eta Eskoriatzan finalak.

Kadete mailan, Elgoibarko eta Antzuolako pilotariak izango dira nor baino nor gehiago, eta gazte mailan, berriz, Elgoibar eta Eskoriatza lehiatuko dira. Ziurtatuta dagoen gauza bakarra da seniorretan txapelduna ibarrekoa izango dela, Bergarako eta Aretxabaletako pilotariak neurritu dituzte-eta indarrak.

NORGEHIAGOKA PAREKATUAK

Biharko partiduen gainean faborito nortzuk diren esatea ez da batere erraza, maila guztietan indarrak pare-parean egongo dira-eta. Kadete mailan, Portu eta Txurruka elgoibartarrek Antzuolako Jauregi eta Mendizabalen kontra jokatuko dute. Bi bikote horiek partidurik galdu barik iritsi dira finaleraino, eta ikus-teko dago bietako nor den onena.

Gazte mailan, Elgoibarko Agirrebeñak eta Arrietak Eskoriatzako Atxotegiren eta Axperen kontra jokatuko dute. Elgoibartarrak ez dira makalak, baina Axpe adin horretako gainontzeko pilotarien gaitetik dago, eta Atxotegirik ondo laguntzen badio fina-



Errasti anaiek joan den urtean eskuratutako txapela defendatzeko egingo dute bihar lan.

Ziurtatuta dago seniorretako bikote txapelduna ibarrekoa izango dela, Bergarak eta Aretxabaletak jokatuko dute-eta

Eskoriatzako pilotalekuari neurria lehenengo hartzen dion bikoteak aukera handiak izango ditu finala irabazteko

la irabazteko aukera handia izango dute. Gainera, bikote moduan nahiko erregularak dira, eta hori ere kontuan hartzea da.

Azkenik, senior mailako finalean Aretxabaletako Errasti anaiek eta Bergarako Muguruza eta Gutierrez lehiatuko dira. Eta zeingehiagoka horretan ere ez da erraza faborito nor den esatea. Errasti anaiek ondo baino hobeto

ezagutzen dute txapelketa hori, eta badakite finala jokatzea zer den, bost alditan iritsi dira-eta Debarroko Txapelketako finalera. 1995ean, aretxabaletarrak txapeldunorde izan ziren, baita 2002an ere. Lehenengo txapela 1999an jantzi zuten. Ez zen, baina, azkena izan, 2001ean eta 2003an ere eurak izan ziren-eta txapeldun. Curriculum horrekin batek baino gehiagok

esango du eurak direla seniorretan faborito, baina azkenaldian Bergarako Muguruza eta Gutierrez ondo baino hobeto dabilta, eta kontuan hartzeko moduko bikotea da.

Ezin ahaztu, baina, finalean pilotalekuak berak izango duen eragina. Eskoriatzako pilotalekuari neurria lehenengo hartzen dion bikoteak izango du txapela eskuratzeko aukera handien. Eta, arlo horretan, Errasti anaiek badute abantaila txiki bat.

Biharko finalean, Debarrenak ordezkari bakarra izango du: Elgoibar. Gai nontzeko bikoteek ibarreko herriak ordezkatzeko dituzte. Egia da Debagoienez Debabarrenean baino pilotari gehiago daudela, eta hori konpentsatzeko Elgetak Debabarreneko multzoan jokatuko du aurtur.

Kirolabur

BERGARA/ARKU TIROKETA

Fernando Markina bergararra da domeka ezkerko Espainiako arku tiroketako txapelduna, beterrano mailan eta poleadunen esparruan. Lorpen hori, baina, ez da berria, laugarren urtez izan da-eta bere kategorian onena. Horrez gain, Euskadiko marka berria ezarri zuen domekan: 1.346 puntu, hain zuzen ere. Txapelketa Madrilen jokatu zuten, eta Estatu osoko 42 arkularik hartu zuten esku. Fernandoren esanetan, aurtengo txapelketa oso lehiatsua izan da.

OÑATI/TORREAUZOKO LASTERKETA


Domekan jokatuko da, goizeko hamaiketan, Torreauzoko VII. Lasterketa. Lasterkariak Torreauzotik Olaterra egin beharko dute joan-etorria, eta ibilbidea 7,6 kilometro izango ditu. Izenematea sei euro da, eta lasterketa hasi baino ordu erdi lehenagora arte egongo da izena emateko aukera. 10:30ean, gainera, infantil, alebin eta kadete mailetakoen lasterketak izango dira. Gaztetxoan ibilbidea motzagoa izango da, bi kilometro luze izango da.

OÑATI/TOURRERAKO AUTOBUSAK

Aurtur ere Oñatiko Garmendia eta Odriozola lagunartek eta Lizarralde Kirolak dendak Tourrera bidaia antolatu dute. Mendiko bi etapa ikusiko dituzte, La Mongie-koa eta Andorrrakoa. Dagoeneko debagoien-dar askok eman dute izena, baina oraindik badago lekua. Joan den urtean bete-beteta joan ziren jarri zituzten autobusak, eta aurtur ere bi edo hiru autobus jarriko dituzte. Argibide gehiago gura duenak Lizarralde Kirolak dendara joan besterik ez du, bai Oñatiko dendara (943 78 29 86) edo bai Arrasatekora (943 79 91 47).

ARRASATE/ARKU TIROKETA

Azkeneko lau urteotan egin duten moduan, Arrasateko SP-10 taldeak Arku Tiroketako Txapelketa antolatu du aurtengo San Juanetarako. Txapelketa Zaldirarren izango da, bihar, zapatua, 18:00etan. Oñati, Eibar, Durango, Zornotza eta Bilboko taldeak lehiatuko dira Robin Apple modalitatean. Modalitate horretan, arkulariak 18 metrora jartzen dira, eta puxika bi eta uztaiz eta sagar bana izaten dituzte helburu. Jakin, gainera, txapelketa amaitutakoan bertara hurbildutakoek arku tiroketa probatzeko aukera izango dutela.



DAMKAR'T

Estetika eta ile-apaindegi profesionalen eskola
ANCEPEk homologatua

- Kalitatezko prestakuntza osoa
- Etorkizun handiko lanbidea
- Irakasle kualifikatuak
- Ikasturte hasieratik praktikak

Bittor Sarasketa 7, 3. solairua
Tel.: 943 127 152 Faxe: 943 121 518
20.600 EIBAR
Posta-e: damkar.t@terra.es

Matrikula zabalik!
Plaza mugatuak!

20 urtean
prestatutako
profesionalak
dira gure bermea





RENAULT SERVICIOS

carrocería rápida

ARTE ABSTRAKTUA MUSEOETAN DAGO ONDO, EZ ZURE AUTOAN.
CARROCIERÍA RÁPIDA: KONPONKETAK 24 ORDUEN BARRUAN.

Urradurek, kolpe txikiak, kristal, argi nahiz atzerako ispilu apurtuek ez dute ongi ematen zure autoaren karrozerian. Horregatik, guk 24 orduen barruan konpontzen ditugu, alde zureko hitzordu barik eta unean bertan egindako aurrekontuarekin, idatziz eta konpromiso barik. Eta hala ez bada, ordezko ibilgailu bat doan.

Pieza de Origen **Renault**
Espíritu Renault

RENAULT recomienda **elf**

Renault Servicios. Gelditu ez zaitez mugitzen gara.

Buruan baduzu, hemen duzu. www.renault.es

RENAULT
AUTOBERRI
S. Andres auzoa, 8. • Tel. 943 71 24 72
ARRASATE

Uda gaztea!




“GOMENDATZEN DIZUT...” SARIA

- Emaguzu zure oporren inguruan gomendia: egon zaren ostatua, ikusi dituzun paisaia eta txokoak, deskontu txartelak...
- Parte-hartzaile guztien artean zozketa egingo dugu. Saria: bi lagunentzako asteburua Euskadiko landetxe baten.
- Eskatu parte-hartze orria Gazte Bulegoan.
- **Gomendioak jasotzeko azken eguna: irailaren 24a.**



GAUR EGUNGO DANTZA IKASTAROA

- Irakaslea: Saioa Ibañez
- Egutegia: uztailaren 9tik 19ra
- Egunak: astelehena, eguaztena eta egubakoitza
- Orduetgia: 20:15-21:45
- Lekua: Arrasate Musikalen
- Matrikula: 20 euro / 10 euro ikasle edo langabeentzat



GAZTERIAREN MUNDUKO JAIALDIA

- Non: Bartzelonako Forumean
- Noiz: abuztuaren 8tik 14ra
- 18 eta 30 urte arteko gazteei zuzenduta
- Jaialdi autogestionatua, mundu osotik etorritako gazteen arteko esperientziak eta kultura adierazpenak elkartrukatzeko aukera aparta.
- Animatu eta parte hartu zuk ere; Udalak bidaiak ordaintzeko 50 euroko laguntza emango dizu.
- **Izena emateko epea: ekainaren 30a**

INFORMAZIOA ZEHATZAGOA: GAZTE BULEGOA • 943 77 00 65 • gaztebulegoa@arrasate-mondragon.net



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

Gazteria saila ■

veranoski

Eskaintza honek ekainaren 28tik uztailaren 24ra balio du

400.000

sari baino gehiago



EROSKI

Eros ten jak in


Goienka2a

Egubakoitza / 2004ko ekainaren 25a

Kultura
eta
aisialdia



Ekainaren 25etik
uztailaren 2ra



**ESPALOA:
DEBAGOIENKO
KAFE
ANTZOKIA**



Elgetako Espaloa Kafe Antzokia inguruko kultura gune bihurtzeko hornituta dago. Kontzertuak eta antzezlanak egiteko tokia, Internetera konektatzeko baldintza modernoak, enpresendako bilera aretoak, taberna-jatetxea eta beste hainbat zerbitzu eskaintzen ditu. /15



Euskadi geldi ez dadin:

Bay

Euskaldunok Euskadirentzako etorkizun hobeari bai esateko aukera dugu orain. Eta honetan denok gaude ados.

- > **Bai garraio sistema moderno eta gaur-gaurkoari**, energia aurreztu eta ingurumena errespetatzen duenari, gure errepideetako trafikoa arindu eta istripuak gutxitzen dituenari, lurralde eta pertsonak hobeto lotu eta Europara gehiago hurbiltzen gaituenari.
- > **Bai prestazio handiko trenari**, gure ekonomiaren eragile denari eta merkataritza eta salgaien mugimendua azkartzen duenari.
- Bai aurrera egiteari** eta bide lasterretik etorkizun oparago
- > baterantz jotzeari.

Oraintxe dugu Euskal Yari baietz esateko aukera.
Ez dezagun gal aukera hau.



VASCA

Euskadi geldi ez dadin.

aurrera doan **herria**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

GARRAIO ETA
HERRI LAN SAILA

DEPARTAMENTO DE
TRANSPORTES Y OBRAS PÚBLICAS

EuskoTren

AURKEZPENA/ ESPALOAIA KAFE ANTZOKIA INAUGURATU BERRI DUTE ELGETAN

Zabalik dago ibarreko kafe antzokia

DEBAGOIENEKO ETA KANPOKO KULTURA BEHARRAK ASETZEKO SORTU DUTE, GOIBEKO EUSKARA ELKARTEAREN EKIMENEZ

LEIRE KORTABARRIA

Badakigu Elgeta ez dela Bilbo, baina herri txiki batek ere kultura eskaintza duina izan dezake". Espaloia Kooperatiba Elkarteak asmo horri jarraituz ekin zion proiektu bati. Eta azkenean, gauzatu da: zabalik dago Elgetako Espaloia Kafe Antzokia. Atzo, eguena, inauguratu zuten.

Espaloia Kafe Antzokiak, Elgetako eta ibarreko kultura egitasmo garrantzitsuenetako batek, zabaldu ditu ateok elgetar eta debagoiendar guztiondako. Atzo, eguena, aurkeztu zuten egitasmoa Elgetako Udalak eta kudeatzaileek, Espaloia Kooperatiba Elkarteak. Aurrerantzean, eguneroko egongo da zabalik.

Debagoien osoko kafe antzokia izateko bokazioz jaio da Espaloia. Ez hori bakarrik: Debagoieneko eta Bizkaiko publikoari zabalduz eskaintza izango du, eta "hainbat ekitalditan, baita Euskal Herri osorako ere", diote Espaloia Kooperatiba Elkarteak. Erakarpenera horri lagunduko dio Elgetaren kokapen estrategikoak: herri handiak ditu inguruan, eta 100.000 lagunek dute hara erraz hurbiltzeko modua.


Espaloia antzokia denetarikoa kultura egitasmoetarako erabiliko dute. Besteak beste, hauetarako: antzezlanak egiteko —eta, estreinaldia behar bezala izan dadin, bihar, zapatua, izango da lehen saioa, Albadulake taldearen *Malaje* lanarekin, 22:30ean—; kontzertuetarako, herri-jaialdietarako, hitzaldietarako, erakusketak ipintzeko, diapositibak emandak egiteko, zinemarako... Beste bi aukera gehiago izango

ditu: hain zuzen, enpresendako bilera leku ezin hobea izango da, bideo proiektzioak egiteko, Internetera modu azkarrean konektatzeko... aukera eskainiko du eta. Azkenik, aretoak eguneko menuak ere emango ditu, 70 lagunendako taberna-jatetxea egokitu dute eta. Asteko zazpi egunetan bazkaldu ahal izango da Espaloian. Astelehenean, martitzen eta eguaztenetan, 12:30etik 16:00etara izango da zabalik. Asteburuetan emango dira bazkari eta afari bereziak ere.

"HERRITAR GUZTIENDAKO PLAZA"

Kafe antzokiaren erabilera ez da soilik kultura egitasmoetara mugatuko; herritarren zerbitzura egoteko bokazio indartsua ere badu, eta hala azpimarratzen du Espaloia kooperatibak. Izan ere, antzokia erabili zuten lehenengoz, herriko ikastetxeko umeek ikasturte amaierako jaia egin zuten han, eta aurreikusita dago Elgetako musika ikasleek ere erabiltzea. Arduradunek dioten moduan, "aretoa herritar guztiendako plaza berria izango da, kulturarendako leku zaindua denondako: ume, gazte, guraso, erretiratu eta herritar guztiendako". Eskaintza kanpora zabaldu nahi duten arren, kafe antzokiaren zeregin garrantzitsuenetako bat da Elgetako bertako herritarren kultura eta giza beharrei erantzuna ematea.

Bestalde, kudeatzaileek ikuspegi jakin batekin kudeatuko dute antzoki berria: "Kultura eraman nahi dugu jendea dagoen tokira, ez alderantziz. Hori dela-eta ipini dugu taberna-jatetxea. Gure asmoa da Espaloia izatea jendea kultura egitasmoen eta giroaren inguruan ibiltzeko lekua".



AITOR LIZARRALDE

Espaloia Kooperatiba Elkarteak kudeatuko du antzokia. Argazkian, elkarteko hiru kide.

DATU TEKNIKOAK

Horretarako guztirako txukuntxukun egokitu dute eraikina. Udalak eta kooperatiba elkarteak 400.000 eurotik gorako inbertsioa egin dute aurten. Lehengo eraikina itxuraldatuta dago, eta Espaloia antzokia aurrerapen teknologiko eta baliabide onenekin hornitu dute 500 metro koadroko eraikin hori.

Arduradunek bereziki nabarmendu nahi dute soinu egokitzea. Izan ere, hasieran, eraiki-

nak oihartzun handia zuen, baina soinu aditu talde batek egindako gomendio guztiak jarraituta, ezin hobeto geratu da.

Beste datu batzuk ematearren, honakoak: telebistendako prestatuta dago, eta egoitza osoa kablez hornitu dute kamerak entxufatu ahal izateko. Mikrofonia mota guztiak kubritzen ditu: musika-tresnendako, ahotsarendako... Ageretokia inguruko zabalentarioko da. Argiztapena ere modu berezian zaindu dute; guztira, 72 foko ditu.

Telematika aukera berrienak ere txertatzen ditu kafe antzokiak: WIFI gunea —hau da, Internetera modu azkarrean eta uhinen bidezko konexioa— ipini dute, eta Internetera doan konektatu ahal izango dira erabiltzaileak. Horrez gain, ordenagailu portatila konektatzeko aukera ere izango da.

Horrenbestez, kultura eta giza harreman aukera gehiagoz gozatzeko moduko antzokia dugu orain debagoiendarrok.

Egitarau propioa

Espaloia Kafe Antzokiak ostatu emango die besteek proposatutako hainbat ekintzari, baina programazio propioa antolatuko du. Hain zuzen, hiru hilabete behin hainbat ekitaldi izango dira. Hasteko, gaurtik aurrera dago ikusgai *Euskal jaiak* argazki erakusketa. Bihar, Albadulake antzerki konpainiak *Malaje* lana taularatuko du. Urri, azaro eta abendurako egitaraua prestatzen ari dira, eta hainbat ekintza lotu dituzte.



EDU MENDIBIL

Hainbat arduradun, eguneko aurkezpenean.

Eredu berritzailea

Kafe antzokia bere motako lehenengo eredu dugu, ez bakarrik Debagoienez, baizik eta, alderdi askotik, baita Euskal Herri osoan ere.

Izan ere, kultura elkarte batek osoki kudeatutako antzoki bakarrenetarikoa da; bakarra Debagoienez. Hain zuzen, Espaloia Kooperatiba Elkarteak kudeatuko du, eta horren akziodun nagusia Elgetako Goibeko kultura elkarte da. Horrek esan nahi du kudeaketa, hasieratik bukaerara, independentea izango dela. Hala ere, berritasun nagusia da Elgetako Udalak ere bere ekintzak egin ahal izango dituela antzokian.

Egitasmoa, neurri handi baten, Goibekoren ekimenari esker burutu da. Orain dela lau urte, Elgetako Udalak hasi zen Maala kaleko eraikina moldatzen, herrirako erabilpen askotarako areto bihurtzeko asmoz. Orduan, Goibekok bere proposamena aditzera eman zion Udalari: hain zuzen, antzokia kultura bilgune zabal bihurtzea, eta hori eurek kudeaketa Espaloia Kooperatiba Elkarteak lortu zuen.

Eka. 25-Uzt. 2

Leire Kortabarria / Zuen ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: kultura@goiena.com • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77

DEIAK

ARAMAIO

- **Berto bazkaria** izango da bihar, zapatua, eguerdian, Anjel Mari Peñagarikano bertsolariarekin.
- **Odol-ateratzeak** izango dira eguaztenean, ekainak 30, osasun zentroan, 16:30etik 20:00etara bitartean. Arabako Odol Emaileen Elkarteak egin du deialdia.

ARRASATE

- **Herrixa jaxen garra!** egitarauaren barne, hainbat ekintza izango dira egunotan: gaur, egubakoitza, Etxerateg deitutako kale-bilkura, Herriko Plazan, 19:30ean; segidan, sagardo eta pintxo dastaketa eta triki-poteoa. Bihar, zapatua, herri bazkaria, batukadarekin txikiteoa eta kirolak izango dira, besteak beste.
- **Toki Argi erretiratuen egoitzako ile-apaindegia lehiaketara** atera du Udalak. Baldintza guztien zerrenda udal bulegoetan eskura dezakezu.
- **Munduko Gazteen Topaketan** parte hartu gura duten 18-30 urte

bitarteko arrasatearrei Bartzelonara joan-etorria ordainduko die Udalak. Hain zuzen, 50 euroko dirulaguntza izango da. Topaketa Forumean izango da, abuztuaren 8tik 14ra bitartean. Argibide gehiago, gazte bulegoan (943 77 00 65).

BERGARA

- **San Martzialgo erromeriarako** mahai eta aulkiak alokatzeko, jo kultura etxera, ekainaren 29ra bitartean, 16:00etatik 19:00etara.

OÑATI

- **Baseri eta baso inguruko erantzukizun zibila** hitzaldia izango da gaur, egubakoitza, Nekazarien Elkartearen, 19:00etan. Baserritar eta baso jabeen zuzenduta dago.
- **79an jaiotakoek** kinto batzarra izango dute uztailaren 17an. Poteoa, bazkaria eta dantzaldia izango dituzte. Izena emateko, sartu 30 euro Kutzako honako kontuan: 2101 0057 57 0124516295. Uztailaren 7a da mugaeguna.
- **San Ferminetara irteera** antolatuta du Pake Leku erretiratuen elkarteak uztailaren 12rako, astelehena. Lizarra

eta Iruñea bisitatuko dituzte. Izena emateko, jo elkarteko bulegoetara, astelehen edo eguaztenean, 18:30etik 20:00etara bitartean.

- **Oñati Udara 2004 eta Oñati iragana, oraina eta etorkizuna** egitasmoak aurkeztuko ditu Garapen eta Turismo Agentziak martitzenean, hilak 29, kultura etxean, 17:00etan.

ERAKUSKETAK

ANTZUOLA

- **Mairuaren Alardearen** gaineko erakusketa izango da zabalik Olaran etxean, bihar eta etzi, 12:00-14:00 eta 18:30-20:00 orduetean.

ARRASATE

- **Homosexualitatearen inguruko erakusketa** dago zabalik Monterronen, ekain bukaerara arte.

ELGETA

- **Euskal jaiak** izeneko argazki erakusketa dago Espaloia Kafe Antzokian etzira bitartean, domeka.

ESKORIATZA

- **Museo Eskolak** udako programa inauguratuko du etzi, domeka, 13:30ean, hiru erakusketarekin: Aita Emiliano Barandiaranen gainekoa, baserriko txerri lanen ingurukoa, eta trenaren eboluzioaren ingurukoa.
- **A-1 autopista Eskoriatzan: inpaktua gutxitzeko proposamenak** delako erakusketa inauguratuko dute ekainaren 29an, martitzena, kultura etxean, 10:00etan.

elizan, 12:00etan, Aretxabaletako Abesbatzaren eskutik. Azkenik, 13:30ean, haren inguruko erakusketa inauguratuko dute Museo Eskolan.

OÑATI

- **Afari-merienda** izango dute Elkar Hezi ikastetxeko gurasoek gaur, egubakoitza, Santa Marina plazan, arratsaldean. Irakasleek antolatuta dute. Biduri Sound disko jartzaileak girotuko du arratsalde pasa.
- **Torreuzoko jaiak** ospatuko dituzte bihar eta etzi.
- **Zubillaga auzoko jaiak** hasiko dira datorren egubakoitzean, uztailak 2. Egun horretan, txupinazioa, herri txikiteoa... izango dira. 22:30etik 01:00etara bitartean, film labur emanaldia izango da pilotalekuan.

OSPAKIZUNAK

ESKORIATZA

- **Aita Emiliano Barandiaranen** jaiotzaren mendeurrena dela-eta, hainbat ospakizun antolatuta dituzte astebururako. Bihar, zapatua, *Karmel* aldizkariak haren omenez egindako monografikoaren aurkezpena egingo dute udaletxean, 20:00etan. Aretxabaletako Abesbatzak hainbat pieza abestuko ditu. Etzi, domeka, Aita Emiliano Barandiaranek egindako Euskal Meza izango da San Pedro

MUSIKA

ARRASATE

- **Ruper Ordorika** kantautoreak emanaldia egingo du bihar, zapatua, Monterronen, 22:30ean.

30

EGUN PAREGABE

Orain, ekainean, egunero eskaintza ezin hobea izango duzu. Astebetean bakarrik lor dezakezu, edo plazak bukatu bitartean. Zabilta arin!

PRAGA-VIENA-BUDAPEST	Prezioa pertsonako 517€ 86.022 Pta
Ekaina eta Iraila. 8 egun-7 gau. Hegazkina Bilbotik. Hotelak****. Gosariak barne (buffet). Hauek barne: bisitak.	
FUERTEVENTURA	Prezioa pertsonako 365€ 60.731 Pta
Ekaina. Uztailaren 18ra arte. Iraila. Urria. Hegazkina Bilbotik. 8 egun 7 gau. Las Olas eta Castillo de Antigua & suites Hotelak***. Mantenu erdia.	
ALMERIA	Prezioa pertsonako 299€ 49.749 Pta
ROQUETAS DE MAR. 07/1ekin 07/15ra. 8 egun-7 gau. Zafiro Hotela***. Mantenu erdia. Haurrak: lehen dohainik eta bigarren %50eko deskontua.	
IBIZA	Prezioa pertsonako 285€ 47.420 Pta
06/24etik 07/18ra. 09/1etik 09/15ra. Hegazkina Bilbotik. 8 egun-7 gau. Els Pins, Mar Amantis, Marco Polo Hotelak***. Mantenu erdia.	
COSTA DE LA LUZ	Prezioa pertsonako 299€ 49.749 Pta
MATALASCANAS. 07/1etik 07/15ra. 8 egun-7 gau. El Cortijo Hotela***. Mantenu erdia. Haurrak (2-12 urte): %50eko deskontua.	

... Eta horrela uneko preziorik onena asteko egun guztietan

Viajes Eroski Bidaia

Grupo Eroski Kalitatea Bermatuta

www.viajeseroski.es



► JAIK

ESKORIATZAKO JAIK BETE-BETEAN IZANGO DIRA ASTE OSOAN

San Pedroak, herriko jai nagusiak, ospatuko ditu Eskoriatzak aste osoan. San Pedro eguna martitzenean, hilak 29, izango da, eta hor izango dira ospakizun garrantzitsuenak. Edozelan ere, asteburuan bertan, Aita Emiliano Barandiaran zenaren jaiotzaren mendeurrena gogoratuko dute; besteak beste, hark konposatutako *Euskal meza* abestuko dute parrokiaren, etzi, domeka. San Pedro bezperan, astelehenean, hasiko dira jaiak modu ofizialean; etxafuegoak, musika, nagusien danborrada... izango dira. San Pedro egunean, prozesioa, antzerki eta musika saioak, pilota partiduak eta beste hainbat izango dira aukeran. Eguaztena Umeen Eguna izango da; eta eguna, uztailak 1, Euskal Jaia.

Non: Eskoriatzan. **Noiz:** ekainaren 26tik uztailaren 3ra bitartean, egunero hainbat ekintza izango dira.

Zinema

► **Anger eta Kuraia** taldean emanaldia izango da bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

BERGARA

► **Angel eta Kaiet** disko jartzaileek emanaldia egingo dute bihar, zapatua, Go-Jam aretoan, 01:00etan.
► **Peste** taldeak emanaldia egingo du etzi, domeka, gaztetxean, 19:30ean.

ELORRIO

► **Musikaire** jaialdiaren barne, honako emanaldiak izango dira datozen egunotan: gaur, egubakoitza, Brazuka Matraka (Brasil) taldearen emanaldia, Argiñetan, 22:30ean; bihar, zapatua, Ballet Biarritz taldeak dantza emanaldia egingo du, 22:30ean; etzi, domeka, Alacanteko Les Bouffons antzerki taldearen saioa izango da, frontoian, 20:00etan; eta egun horretan baita, Young Performers Philadelphia Orchestra (AEB) taldearen kontzertua elizan, 22:30ean.

OÑATI

► **Burlatoko San Blas** abesbatzak emanaldia egingo du bihar, zapatua, Agustindarren elizan, 19:30etako mezaren ondoren. Eslava, Mendelssohn eta Aita Madinaren piezak abestuko dituzte, besteak beste.

IKASTAROKAK

ARETXABAETA

► **Txalaparta** ikastarorako izenematea zabalik dago hil osoan, Loramendi elkartearen. Ikastaroa uztailean izango da, eguenero, 19:00etan. Matrikula orokorra 10 euro da; ikasle eta langabeendako, 6.

ARRASATE

► **Gaur egungo dantza** ikastaroa antolatu du Udalak uztailearen 9tik 19ra bitartean, Saioa Ibañez arrasatearraren eskutik. Astelehen, eguazten eta egubakoitzero izango dira eskolak, Arrasate Musikalen, 20:15etik 21:45era bitartean. Izena emateko, jo gazte bulegora. 20 euro da; 10, ikasle eta langabeendako.

BERGARA

► **Gaztetxoendako margo** ikastaroa antolatu du Beart elkarteak uztaileko, 10:00etatik 12:00etara bitarteko orduetarako. Argibideak, honako zenbakiotan: 653 71 53 82 (Mayra), 665 70 31 75 (Oihana) edo 635 71 32 69 (Maite).

OÑATI

■ OÑATIKO ZINEMA

El día de mañana
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
Astelehena, ikuslearen eguna.

ANTZUOLA

■ FRONTOTI TXIKIA

Lágrimas del sol
Egubakoitza, hilak 2: 22:30.

EIBAR

■ UNZAGA

Harry Potter y el prisionero de Azkaban
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ RIALTO

Intermission
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna.

GASTEIZ

■ GURIDI

Troya
18:00, 22:00.
Van Helsing
17:00.
El día de mañana
17:30, 20:00, 22:30.

Mystic river
17:00, 19:45, 22:30.

Blueberry
Egubakoitzetik domekara: 22:30.

Venganza ciega
17:30, 20:00, 22:30.

Harry Potter y el prisionero de Azkaban
17:00, 19:45, 22:30.

Whale rider
Egubakoitza eta domeka: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua: 20:00, 22:30.

■ MIKELDI ZINEMAK

Ladykillers
17:30, 20:15, 22:45.

Harry Potter y el prisionero de Azkaban
17:00, 19:45, 22:45.

Lost in translation
